

...eta **kitto!**

777 zkia. 2011-X-7

ASTEKARIA

TOKIKOM



Amantalen ahotsa 75 urte geroago



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
Ilehena zerbitzu optikoetan



IRAZABAL
clínica dental



Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

**Badirelako gauza batzuk galtzea komeni ez direnak...
IRAZABAL KLINIKAN txikienen aho-hortzetako
prebentzioaren alde egiten dugu apustu.
Egizuz **PADI**-ren azterketak.**

2012ko **Gida** prestatzen dihardugu...



- Abokatuak • Aisialdia • Akademiak • Albaitariak • Alfonbrak • Altzariak •
 - Argazkideak • Argiztapena • Arkitektoak • Aroztegiak • Arraindegiak
 - Aseguruak • Asesorak • Autoak • Autoeskolak • Bankoak • Belardendak
 - Bidalak Bideo erreportaiak • Bideo klubak • Bitxitegiak • Bulego fresneria
 - Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitatea • Elektrodomestikoa • Elkarteak •
 - Eraikuntza • Errehabilitazioa • Erreforma • Errotulazioa • Estankoa • Este-
fika • Farmaziak • Ferreterak • Fotokopiadendak • Fruitategiak • Funera-
riak • Garagardotegiak • Garraloak • Gasolindegiak • Gozokiak • Gozo-
tegiak • Grafikagintza • Harategiak • Haurzaindegiak • Euskaltegiak •
 - Ikastetxeak • Hotelak • Igeltseroak • Ilegaindegiak • Industria Informa-
tika • Inmobiliariak • Inprenta • Iturginak • Janariendak • Jantziendak •
 - Jatetxeak • Jostailuendak • Kafetegiak • Kalejardura • Kharriendak • Ki-
txoidendak • Komunikabideak • Komunitateak • Kondekorak • Konstruk-
zioa • Kristaldegia • Leioak • Lintzeta • Iburriak • Loradendak •
 - Makina saltzaleak • Marpatzakoak • Matrikak • Medikuntza • Ana-
lisi klinikoak • Derrabioak • Dietetikoa • Nutrizioa • Errekonozimenduak
 - Fisioterapia • Logopediak • Mielologoak • Otorrinoak • Podologoak •
 - Psikiatriak • Psikologoak • Terzeriak • Nofarriak • Oinetakoak • Okinde-
giak • Ortopedia • Perlanak • Pinturak • Pizzeriak • Plastikoa •
 - Prestakuntza auzkarriak • Publizitatea • Sindikatua • Sofak • Sukaldeak •
 - Tabernak • Teatruak • Telerikakoak • Telerikakoak • Telerikakoak •
 - Tegiak • Telerikakoak • Telerikakoak • Telerikakoak • Telerikakoak •
 - Abokatuak • Alkateak • Alkateak • Alkateak • Alkateak •
 - Teknikoak • Aroztegiak • Aroztegiak • Aroztegiak • Aroztegiak •
- zure aukera bakarra
- DEITU..** 943 20 67 76
943 20 09 18



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Amantala

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*)k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HOR NUNDIK NORA.- Hara non. "Hor nundik nora egin zan, une baten baiño ezpada be, plaentxiatar bat zeruetako atezain!".

HOR-EZPENGO.- Leku desegokian eraiki zuten etxe bati jarri zioten izena (Hor ez bahengo-tik).

HORRAITTIOK.- Esaten denari indarra emateko. "Tranpia kendu bihozula ta itxaitzeko? Ez horraittiok!".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Heriotza zigorrak indarrean jarraitzen duen bitartean, Floridako Eric Gein izengoitiaren atzean ezkutatzen den gizonak negozioak egiten segitzen du AEBetako serial killer edo hiltzaile handienen objektu eta oroigarriak saltzen. Badaki krimenzaleak daudela gizartean gaizkiak eragiten duen morboagatik, eta horretaz aprobeztatzen da. Negozioa ez da txantxetako: hamaika emakume hil zituen Anthony Sowellak eskuz idatzitako gutun batek 150 dolar balio du eta hark bidalitako Egu-berrietako postalak 225 dolarretan daude salgai. Horrelakoak dira Amerikako Estatu Batuak"


(Jose Mari Pastor, nazioarteko kazetaria)

"Reala entrenatzaile bila ari zenean, Marcelo Bielsa fitxatzeakotan egon zen; azkenean ez zen ausartu Realerara etortzen. Gero, handik pixka batera, Josu Urrutiarri baiezkoa eman zion, Athletic-en hauteskundeak izan aurretik. Realari ezetz esan zion; Athletic-i baietz. Erabaki horren oinarrian zerbaite dago. Zer? Kike Marin kirol kazetari donostiarrak dioenez, 'Bielsak ezetz esan zion Realari haren ustez astelehen gehiegi izaten direlako tristeak Donostian'. Azken domekakoa horren lekuko: astelehen tristea izan dute oso Gipuzkoa aldean; guztiz alaia, berriz, Bizkaian"

(Aitor Manterola, kirol kazetaria)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

JUBILAUEN TABERNIA

Untzaga jubilau etxiak aditzera emon dabenez, bertako taberniaren arduria hartu nahi dabenak horretarako eskaeria presentatzeko aukeria hillaren 31ra arte izango dau. Interesa dakenak astelehenetik eguenera, 12.30etatik 13.30etara zentroko bulegora jo leike informaziño eske.

1951-N JAIXOTAKUAK

Azaruaren 19xan bazkarixa egingo dabe 1951n jaixotakuak. Iruki sagardotegixan 14.30-xetan izango da bazkarixa eta juan nahi dabenak 70 euro sartu biharko dittu Kutxako 2101 0035 10 0012847646 kontu zenbakixan, azaruaren 12xa baiño lehen (izen-abizenak ipiñitta).

NAFARROA OINEZ

Juan Antonio Mogel Ikastolako Gurasuen Alkartiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak hillaren 16xan ospatuko dan Nafarroa Oinez jaialdira juan nahi dabenendako autobusa antolatu dabe. 08.30xetan urtengo da Ego Gaiñetik eta buelta 18.30xetan izango da. Txartelak ...eta kitto!n (Urkizu, 11 solairuaratean) ipiñi dittue salgai.

Liburu eta Disko azokia**URTERO EUSKADIKO LIBURU AZOKEN BATZORDIAK, EIBARKO UDALAK LAGUNDUTA, ANTOLATU** ohi daben Liburu eta Disko azokia datorren

asteko barixakuan, urriaren 14an zabalduko dabe eta, betiko martxan, Untzagan hillaren 23ra bittartian egongo diran salmenta-postuetan literatura munduko azken nobedadiak erosteko aukeria eukiko dau nahi dabenak, prezio berezixan, gaiñera.

**Kalidade Turistikuaren diplomia Krabeliñendako**

ASTELEHENIAN DIPLOMIA JASO EBEN OIN DA LA URTE BI KALITATEA PROGRAMIA GARATZIA-RI EKIN ZETSEN Debabarreneko 25 enpresa eta erakundek, tartian Eibarko Krabelin Hotelak, Getariako Balentziaga Museuak hartu eban ekitaldixan.

Programiak lau urterako iraupena dauka eta ardurduna Eusko Jaurlaritza da, Euskalit erakundiaren bitartekaritzarekin, baiña ku-

deaketia Debegesaren eskutan dago eta bertakua arduratzen dira programan parte hartzen diharduen eskualdeko enpresa eta erakundiekin harreman zuzena izatiaz zeñi aholkulari biharra egittiaz.

Aste honetako ekitaldixan ziurtagirixa jaso dabenak honetxek dira: Zumardi pensiñua (Deba), Urgain jatetxia (Deba), Debako turismo bulegua, Lasturko aterpetxia (Itziar-Deba), Zelaietaberri landaturismua (Itziar-Deba), Zubeltzu-torre nekazaturismua (Itziar-Deba), Goikola nekazaturismua (Itziar-Deba), Itxaspe apartamentuak (Itziar-Deba), Saka nekazaturismua (Itziar-Deba), Itxaspe kanpiña (Itziar-Deba), Ancon nautika (Ermua), Melida ostatua (Ermua), Longa nagusi nekazaturismua (Mallabia), Zelai landaetxia (Mallabia), Txarriduna hotela (Elgoibar), Debaventura Agaiti (Itziar-Deba), Krabelin Hotela (Eibar), Zu-



Aurtengo 25 sarituak euren diplomekin. Makurtuta, ezkerretik lehen Krabelineko Mireia Alonso.

malabe hotela (Mutriku), Nautilus Mutrikuko ikasgune geologikua (Mutriku), Mutrikuko turismo bulegua, Arbe hotela (Mutriku), Arriola Txiki nekazaturismua (Deba), Donibane nekazaturismua (Deba), Txindurri iturri nekazaturismua (Deba) eta Eleizondo landaetxia (Deba).

Talde barrixa osatzeko deialdixa

Bestalde, eta eskualdeko enpresetan euki dittuen emaitza onak ikusitta, Debegesak deialdi barrixa egingo dau laster, zerbitzuen kalidadian sakontzeko biharrian hasi nahi daben enpresa turistikeri (jatetxe, ostatu, taberna, enpresa turistikoa, museo eta orohar sektore turistikuarekin harremana daken enpresak) zuzenduta. Informaziño gehixago jaso nahi dabenak edota programan parte hartu nahi dabenak, Debegesara deitzeko aukeria daka, 943820110 telefonora (Beatriz).

Gure Balioak ekimena kalera**AURREKO ASTIAN UNIBERSIDADE LABORALIAN EGINDAKO EKITALDIXAN PRESENTAU EBEN**

Gure Balioak ekimena kalera etarako dabe gaur arratsaldian, 18.00etatik aurrera Toribio Etxebarria kalia eta Untzaga plazan garatuko diran hainbat jarduerarekin. Aurkezpen ekitaldixan aurreratu ebenari jarraituta, gizarte-balixuak eskualde maillan berrindartzeko helburuari jarraitzen detsan programia herritarren

artian ahalik eta gehixen zabaldu nahi dabe, parte-hartzia haunditzeko eta, horretarako, Debabarreneko herrixetan hainbat jarduera eruango dittue aurrera. Lehelengua

gaur gurian egingo dana izango da eta bestiak beste informaziño-mahaixak eta gaztetxuentzako txapak egitten ikasteko tallarrak egingo dira. Horrekin batera, hainbat gaztek graffitixak margotzen jardungo dabe, kanpaiñarekin indartu nahi dittuen gizarte-balixo baktzeko irudi bana margotuko dabe. Jendia animau ezker, artista sena erakusteko aukeria eukiko dau, euren ideiak horretarako propio egokituko daben horma batian.



Agiñagakuak San Miguelak ospatu zittuen

ASTIAN ZIHAR HASITTAKO SAN MIGUEL JAIXAK, OHITTU-RIARI JARRAITTUTA, ASTEBURUAN ERREPIKAPENAREKIN luzatu zittuen Agiñagakuak. Zapatuan zein domekan egindako eguraldi edarrarekin erakarritta, jende asko animau zan antolatutako ekitaldixetan parte-hartzen. Zapatu arratsaldian briska txapelketia, umiendako jolasak, pelota partiduak, diskotekia eta txokolate-jana egin ziran eta, afarixa amaituta, Kupela taldiaren erromerixan ederto ibilli ziran. Agiña alkartekuak antolatutako programiak domekan segidu eban, mezarekin hasi eta arratsaldeko idi-probekin agurtuta. Bixen bittartian Zerutxu dantza taldiaren emanaldixa, pis-kolabisa, Gorriti eta paella-jana egin zittuen.



Paella-jana egiñ ondoren, kartetan egitteko aukeria izan eben Agiñagan alkartutakuak.
/ LEIRE ITURBE




Barrena kalekuak ederto jaixetan

ZAPATUAN BIGARRENEZ OSPATU ZITTUEN AUZOKO JAIXAK BARRENA KALEKUKAK, eguardi partian hasi zan programiari jarraituta. laz egin-dakuaren bidetik, aurten be paella lehiaketia antolatu dabe eta, eguraldixa lagun, asko animau ziran parte-hartzera. Lehiaketia zeñ atzetik etorri zi-

ranak Barrenako parkian egin zittuen: lehiaketako irabazlieri sarixa emon eta, jarraixan, auzokide mordua alkatu zittuan bazkarixa egiñ eben, lehiaketa-rako preparautako paellak aprobetxautu. Bazkal ostian, umiendako jokuak eta Barrenako II. Mus Txapelketiak agurtu zittuen jaixak, hurrengo urterarte.

auzorik auzo



Mogeleko igogaillua martxan

Astelehenaz geroztik Juan Antonio Mogel auzoko igogaillua erabiltzeko moduan dago: igogaillua zeintzuk erabiliko eben erabagitzeko hainbat bileraren ostian, Udala eta auzokidiak ados ipiñi eta, oiñ hurrengo zabaldu daben Iparragirre kalekua-ren moduan, hauxe be edozeiñek, auzokuak zein beste herrittarrak, erabiltzia erabagi dabe. Ipuru foball zelaixaren parian, auzoko 5. eta 6. zenbakixen artian jasotako igogaillua Excavaciones Fresneda-k egin dau eta biharrak 194.220 euroko kostua izan dabe. Ordaindu biharreko kopuru osotik erdixa Eusko Jaur-laritzak bere gaiñ hartu dau, irisgarritasuna hobetzeko bere programen barruan. Erabillera publikokua danez, herrixan dagua-zen gaiñontzeko irispide mekaniko guztien ordutegi berberari jarraituko detsa honek be: goizeko 06.30xetatik gabeko 23.00eta-ra egongo da martxan. Zabaldu barri daben igogailluak ixa 4 metroko desnibela gainditzen dau eta 8 lagun (630 kilo) hartzeko ahalmena dauka.


eibar kaleka

Amaña kalia

Legarretik Amaña auzora sartzera goiazela topatzen dogun kalia da Amaña. Izen horri erreferentzixa gure herriko toponimixan topau geinke, han inguruan egon ziran basarrixetako bat goguan.


Pegora kopurua: 25

Erroldatutakoak: 300



asteko
300
datua

maskota hartu ditto Matsarixan maiatzian zabalduko krematorioxo barrirak lehelengo lau hillabetiotan. Zerbitzu gehixenak txakurrekin egin dira, eta baita katuekin be; zerbitzua erabili dabe huroi, untxi eta "36 urte zittuan loro" banaren jabiak be. Erabiltzaillien artian, Bizkaia aldekuak dira nagusi.



Ideologixa eta gizakixa aztergai

MARTITZENIAN JOSE MARIA SETIÉN PORTALEAN IZAN ZAN, IDEOLOGIXA ETA GIZAKIXAREN GAIÑEKO HITZALDI-ZIKLUA ZABALTZEN, "Ideologixa modernuen izaeria eta gizakixaren duintasuna" izenburuko hitzaldixarekin. Idazkaritza Sozialak, Eibarko Parrokixak eta Bakea eta Justiziak antolatutako hitzaldi-zikluak datozen hillebetiotan jarraipena izango dau, beste hitzaldi eta hizlari batzurekin: Pako Garmendia abenduaren 12xan eta 20xan izango da berbetan eta Juan Manuel Sinde, barriz, 2012ko urtarrillaren 10ian eta otsaillaren 7xan. Hitzaldi-ziklua ixteko, hizlari guztiak mahai-inguruan batuko dittue otsaillaren 14an. Informaziño zabalagua nahi dabenak 943-4318211 edo 627627185 telefono zenbakixetara deitzeuko aukeria dauka edo, bestela, sozialidazk1@euskalnet.net helbidera idatzi.

Hamaika Telebista dialeko 11. zenbakixan

GIPUZKOAKO EMISIOA GIPUZKOAN ZABALTZEKO AURRERAPAUZO BARRIXA EMON DABE HAMAIKA TELEBISTAK-EK ETA EUSKALTELEK. Koldo Unanue Euskalteleko Marketiñeko zuzendarixak eta Iñaki Uriá Hamaika Telebistako zuzendarixak oiñ egun batzuk eskindutako agerraldixan azaldukatuari jarraituta, joan dan astiaz geroztik dialeko 11. zenbakixan ikusi ahal izango dabe Gipuzkuako Euskalteleko ikusliak, Bizkaikuak oiñ arte egiñ izan daben moduan. Euren berbetan, "holan Euskaltelen Telebista eskintza kanal barri batekin aberasten da eta, horrekin batera Hamaika Telebistaren zabal-kundia Gipuzkuan handitxia lortzen da".

Gipuzkuan LTDaren zabalkunderako 7 barruti egin ziran eta horretatik 3 zuzenian Hamaika Telebistak kudeatzen ditto: Donostialdea (Donostia, Astigarraga, Urnieta, Hernani, Andoain, Lasarte, Usurbil), Debabarrena (Ermua, Eibar, Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba, Mutriku) eta Oarso-Txingudi (Pasaia, Lezo, Oiartzun, Erretereria, Hondarribia, Irun). Danetan dialeko 11. zenbakixan ikusiko dabe aurrerantzian Euskalteleko bezeruak. Debagoienan, Goierri, Tolosaldean eta Urola-Kostan, barriz, dialeko 991.ian ikusiko dabe Hamaika Telebistaren Gipuzkuako emisiñua.



Koldo Unanue Euskalteleko Marketiñeko eta Iñaki Uriá Hamaika Telebistako zuzendarixak. / LEIRE ITURBE

Euskaltelek, Hamaika Telebista proiektuko bazkidia izatiaz gain, baliabide teknologikuak eskintzen ditto euskarazko tokiko telebistak EAE osora hedatzeko. Pauso honekin, Euskaltelek tratu berezixa emoten detse euskarazko telebista-kanaleri. Azpimarratu nahi izan dabenez, "Euskaltelen Telebista da Premium edukixak, gaikako kanalak eta naziñoarteko kanalak gertuko kanalekin (euskarazko tokiko telebistekin, adibidez) bateratzen dittuan plataforma bakarra eta gaur egun kanal horren banatzaille nagusixa da EAEn".

Udal aurrekontua murrizten

UDALERRI GUZTIETAN DIRU-SARRERAK BEHERA EGIN DABE ETA GURIA EZ DA SALBUESPENA IZAN. Horregaittik, eta Diputaziñuak autu honen gaiñeko debatia atzertzeko erabagixaren barri jaso ostian, datorren urterako presupuestua preparatzian gastuak ahalik eta gehixen murrizten ahaleginduko dira eta, beraz, aurreko urtiotako presupuestuak baiño txikixagua izango da 2012kua. Diru-sarrerak murriztiakin batera, Udalak Haziendari pagau biharrekuak gora egin dau: Eibarrek 1'6 millioi euro bueltau

biharko detsaz Gipuzkuako Ogasunari. Bestalde, azken urtiotan krisixari aurre egitten laguntzeko diru-laguntza berezixak jaso dittue udaletan, bai Madrilgo gobernutik baita Eusko Jaurilaritatzatik be, baiña aurrerantzian ez da holako gehixago banatuko eta horren eragiña inportantia izango da presupuestorako kopuru totala osatzeko orduan. Azken urtiotan Eibarko Udalak %20 bajau ebazen presupuestuak eta, erregular, horrek zuzen-zuzenian eragin detsa proiektu barrirak abiarazteko ahalmenari. Edozelan be, inbersiño guztiak bapantian ez dittue ezabatuko, baiña egin biharrekuen gastua ahal dala murrizteko neurri guztiak hartuko dittuela aurreratu dabe agintarixak.

Jendetza batu zan Ulaziaren agurrian

MIDI D' OSSEAU MENDIXAN IRAILLAREN 25-IAN ISTRIPUZ HIL ZAN JUAN LUIS ULAZIA Klub Deportiboko mendizale eibartarrari agur esateko ekitaldixak, Txaltxa Zelaiko auditorixua eta inguruak, azken agurra emotera gerturatu zan jendez bete zittuan aurreko barixaku arratsaldian. Musikia, dantzak, bertsuak eta beste hainbat eskindu zetsazen ekitaldi hungigarrixak.



Teorian hasi da perretxikotan juateko sasoia, baiña azken astietako eguraldixan ondorioz inguruko mendixetan ez da gauza askorik aurkitzen momentuz. Halanda be, urtero moduan Jardunaldi Mikologikuak egingo dira gure herrixan asteburu honetan.

Perretxikotan juateko ohituria badozu?



ICIAR ANCHIA
44 urte
etxeoandria

Oiñ ez dakat juateko ohiturarik, baiña lehen bai, aittarekin juaten nintzan. Gaur egun juaten ez ba-naiz be, perretxikuak jatia asko gustatzen jata. Oso gozuak dagoz, batez be, honguak, baiña danak gustatzen jataz, egixa esan.



JOSE LUIS SÁNCHEZ
58 urte
bihargaña

Ez naiz juaten perretxiko billa, gaiñera, ez dau oso eguraldi aproposa egin perretxikuak urte-zeko. Entzun dotenez ez dago perretxiko asko mendixan. Jatia bai gustatzen jata, gehixenbat es-negorrixak. Oso gozuak dagoz!


ALEJANDRO LÓPEZ
54 urte
bihargaña

Ez dakat ohitura askorik, baiña juanda nago perretxiko billa. Gehixenbat mendixan zihar buel-tia emoteko juaten naiz eta ez na-bil perretxikuak dagozen edo ez begira. Hori bai, kazuelan dagua-zenian bai egoten naizela adi (barriak).



MALÉN AGIRRE
jubilaua

Iñoiz ez dot euki perretxikotan juateko ohiturarik. Gizona juaten zan, asko gustatzen jakon, baiña hil zan. Jateko asko gustatzen ja-taz, honguak batez be, eta gibe-lurdiñak be bai, baiña ez dittut as-kotan jaten, gizonak ekartzen zi-tualako etxera.



ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Solomo iberikoaren carpaccio-a
Etxeko foie-a
Otarraixkak plantxan

Legatza saltsa berdean edo
Bakailaoa pikillo saltsan

Solomilloa plantxan edo
Ahate confit-a

Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolate flana laranja erara

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astelehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

25 € + BEZ

Tokia gordetzeko:
943206348

EGOITZA NAGUSIA
Blakborrieta 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erreusketako labora

Egizkeren (Signo poligonar)
Partikular: nekro eta osaguri erretu partikular
Korako - Eskola - Urteurrenko ekitaldi
Eskola Herri osoko ospitaleko herriko zati
Nazio eta Nazioarteko itzulpunak

Mugica
Ehorzketa

TELEFONUA (24 GRDU)
943 201 951

Sarritan entzun izan dogu historixia irabazliak idazten dabela. Eta, hori holan izanda, pasautakuen gaiñekuen barri emoteko orduan asko dira bidian, liburuetatik kanpora ixillik geratu diran ahotsak. Azken urtiotan, baiña, gauzak kanbixatzeko ahalegiñak ugaritzen jua dira eta, zorionez, gertakarixen inguruko beste bersiño batzuk geure artera aillegatzen dihardue. Eta, holan, behin baiño gehixagotan ikusi dogu betidanik kontautakuak eta benetan pasautakuak zerikusi gitxi dakela edo, beste barik, lehendik genkiguna osatu eta aberasteko aukeria eskindu deskue kontakizun barrixak.

Gure historixa gertukuan gertakarixen batek orrixak eta orrixak bete badittu, hori Gerra Zibilla izan da. Liburuak bete ez eze, pelikulak, antzezlanak, ikus-entzunezkuak, abestixak eta beste hamaikarako aitxakixa emon dau gure aitxixa-amamak zuzenian bizi eta sufridu eben gerriak. Aurtengo julixuan Espaiñiako Gerra Zibilla piztu zala 75 urte bete dira eta, hori goguan, Amantala Kultur Elkartek, San Telmo Museuarekin alkarlanian, hori gogoratzeko ikuskizun berezixa sortu dau: gaur bertan Donostiako Victoria Eugenia antzokixan estreinaldixan presentauko dabene "Amantalen Ahotsa". Gerraren gaiñeko



Amantalen Ahotsak sukaldetik taula gaiñera

pasadizuak oindiok be jendiarendako erakar-garrixak gertatzen dirala dudarik ez dago, izan be badira bizpahiru egun sarrera guztiak auresalmentan gastau zirala.

Gerra sasoiuak andrazkuen ikuspegitik kontatzia. Hori da gaur lehelengoz ikusiko dan ikuskizuna sortzeko arrazoi nagusixa. Eta ikuskizuna osatzerakuan musikia, bertsuak, dantzak eta Badihardugu Debabarrenako Euskara Elkartearen Ahotsak.com proiektuko testigantzetako asko batu dittue. Amantalako ordezkariaren berbetan, "orduan sasoiu historixia kontau nahi dogu eta kontakizuna andrazkuen begixetatik egingo dogu, euren bizi-

penetan oiñarrittuta. Ikuskizunaren bizkar-hezurra adiñeko andrazkuen testigantzak izango dira, www.ahotsak.com proiektuko bideo-pasariak. Baiña saiua biribiltzen zuzeneko musikia, kantuak, antzerkixa eta dantzak ikusiko dira taula gaiñian eta, gaiñera, narratzaile lana be beteko dabe, bakotzak bere modura eta bere baliabide artistikuak erabillitta".

Bestiak beste Maialen Lujanbio bertsolariak, Oinkari dantza taldeko Laura Martiñek, Amaia Zubiria, Ariane Unamuno (Ain_1) eta Zaloa Urain (Kokein) abeslarixak, Sorkunde Idigorasek (pianua), Arantxa eta Eli Ansak (txalapartia), Mirari Irurzunek (bioliña), Ainere Tolosa, Sara Cozar, Maite Bastos eta Naiara Arnedo aktoriak, Itziar Ituño kontalarixak hartuko dabe parte ikuskizunian, danak be beste andrazko batek, Agurtzane Intxaurregak zuzenduta.

ZALOA URAIN

"Ikuskizuna osorik zelakua dan harrittuta nago"


- Gaurko estrenuan abestu bihar dozu. Zer kantaiko dozu?

Ba proiektuaren arduradunak aukeratutako abestixa, Kokein taldiaren "Heldu". Ikuskizuna osatzen jardun dabene, pasarte eta bestelakue-dako egokixak izan leikiazen musikak eta bestelakuak aukeratzen ibilli dira eta abestixetako bat gure taldiarena izan da, baiña talde barik, pianuaren eta bioliñaren laguntasunarekin jardungo dot gaurkuan.

- Zelan hartu zenuen Amantalen Ahotsa-re-

kin bat egitako inbitaziñua?

Ba oso pozik, oin dala hillebete deittu zesten eta, harrezkero, egin dabene biharra ikusitta, oso ideia politta begittantzen jata. Aurreko zapatuan euki genduan lehelengoz danak alkarrekin ensaiztzeo aukeria eta harrittuta geratu nintzan ikuskizuna osotasunian zelakua dan ikustian. Oso emotibua ikusi neban, 100 bat lagunek jardungo dogu taula gaiñian, danak andrazkuak eta generaziño diferentien ikuspexiak erakutsiko dira.



Frentetik kanpoko kontuak

Amantala Kultur Elkartea euskalgintzan, alor diferentietan (antzerkixan, kazetaritzan, musikagintzan, bertsolaritzan, historixan...) biharrian diharduen hainbat lagunek sortu dabe. Ideia oin dala urte eta erdi inguru sortu zan, Amantalako Idoia Etxeberriak kontautakuaren arabera: "Ideia gerrako kontuak jasotzen ari giñala sortu zan. Aurtengo uztaillian 75 urte bete dira gerria hasi zanetik eta orduan gertatu zana azaltzeko momentu ona begittandu jakun. Baiña hasieratik garbi genkagun hainbat diziplina batuko zittuan ikuskizun artistikua egin nahi genduala eta, hori martxan ipintzeko, Amantala Kultur Elkartea sortu genduan".

"Batek baiño gehixagok galdetuko detsa bere buruari: "Eta zergaittik andrazkuen ikuspegiatik?". Galdera horrendako erantzuna beste galdera bat da: "Eta zergaittik ez? Gu andrazkuak gara, eta euskaldunak. Horregaittik da ikuskizuna euskaraz eta andrazkuen bizipenetan oiñarritutakua. Ikuskizuna ez zan sortu aldarri feministarik egitteko, baiña bai emakumiaren biharra eta bizimodua ezagutarazteko. Badirudi gerran gertatu zana gizonen kontua dala, eurak egon ziralako frontian. Baiña biztanlien erdixa andrazkuak ziran orduan be, eta gizonak bezainbeste sufridu eben. Azken batian eurak egin ziran famelixaren kargu. Baiña beti isil-isillik".

Izan be, frontiak edo politikan ibilli ziran gizez kuen lekukotasuna askotan entzun izan dogu, baiña oinguan andrazkuen bizipenetatik abiatuta berreskuratu nahi izan dabe gerran eta gerra ostian bizi izandakua. Horregaittik,



emanaldixaren ardatza gerra sasoia bizi eben andrazkuen testigantzak izango dira Ahotsak.com proiektuko bideo-pasartiak: "Izan be, gerra sasoko pasadizuak gizez kuen kontau dittue oiñ arte, borrokan parte hartu ebenak hain zuzen be. Andrazkua famelixaren euskarria izan zan, baiña, halanda be, haren miñak eta ahalegiñak ezkutuan geratu dirala pentsatzen dogu". Hori dala eta, andrakumiak etxian, biharrian eta kalia bizi izan ebena jaso nahi izan dabe, "haien pozak, nekakiak eta buruhaustiak. Gerra sasoiaren eta ondoren".

Gipuzkuako 40 andraren berbak

Asmo horrerri jarraituta, gerrako kontuak ez eze, gizarteko alor guztiak jorratuko dittue: etxeko ohitturak, biharreko gorabeherak, kaleko girua, erlijioaren indarra... Batzuetan gordin, beste batzuetan umoretsu: "Gipuzkuako eskualde

guztietako andrazkuen ahotsak hartu dittugu aintzakotzat, sukaldetik plazara eterako dittugu. Gure amoneri emon nahi detsagu berbia eta, soka horrerri helduta, barrixa eta modernua dan zeozer sortu. Horretarako bildu dittugu ikuskizunian kultur arloko hainbat lagun".

Ikuskizunian andra nagusixen testimonixuak pisu haundixa eukiko dabe: "Ahotsak.com egitasmorako eginda eguazen alkarrizketak erabili dittugu. Gatxa izan da ikuskizunerako pasartiak aukeratzia. Gipuzkuako andra morduari egindako alkarrizketak dagoz eta guk landu nahi genduazen gaixak topatzia ez da erraza izan. Gaiñera, azpieuskalki guztiak modu batian edo bestian ordezkaturia egoteko ahalegiña egin dogu. Danera 40 bat andraren berbak aukeratu dittugu, gerrako gertaerakin eta gerra osteko giurarekin lotutakuak jasotzeko: eskolia, biharra, ezkontza, elizaren indarra...".

Eta horrekin batera, hainbat artistak zuzezan jardungo dabe. Etxeberriaren berbetan, "gure gustoko artistak alkartu dittugu, ikuskizuneko mezuarekin eta giurarekin bat zetozenak. Bakotxak bere modura, bere baliabide artistikuekin, gure amonak emondako sokiari helduko detse. Holan aberasgarrixagua eta polittagoa dala pentsatzen dogu. Transmisiñua oso inportantia da guretako, eta etxeko sukaldetik antzokira eruango dogu hori".

Horrek guztiak jakinda, gaurko ikuskizuna zelakua izango dan aurreratu desku Amantala lako ordezkariak: "Entretenigarrixa izango da, bizixa, oiñ hungigarrixa oiñ umoretsua, ikuslari bidaia politta proposatuko detsana".



Ekitaldixaren aurkezpenia Donostiako San Telmo museuan egiñ eben.

nafarroa oinez TAFALLAN

urriak 16

AUTOBUS zerbitzua:
IRTEERA 08.30^{etan}, Ego-Gainetik
BUELTA 18.30^{etan}, Tafallatik **11 euro**

hamaika 11n

ANTOLATZAILEAK:
- J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte
- ...eta kitto! Euskara Elkarte

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

TEEN-
AUEA



Abuztuan joan zen Olaia Sarasola eibartarra Ohiora, baina orduetik zerbaitek ikasi duela dio. "Bizitzan honetan zerbaitek izateko ahalegin handia egin behar da". 16 urte ditu eta, printzipioz, datorren udara arte han egongo da ikasketak egiten.

OLAIA SARASOLA, ikaslea Ohion:

"Alde handia dago Ohio eta Eibar artean"

- Zer egiten duzu Ohion? Nola sortu zitzaizun bertara joateko aukera?

Ingelesa asko praktikatzen ari naiz, lagun berriekin esperientzia zoragarria bizitzen eta, noski, ikasten ere. Kirol asko egiten dihardut eta, horrez gain, taldekideekin harreman sendoak jorratzen.

- Non bizi zara zehazki? Familia batekin zaude?

Archbold izeneko herri batean bizi naiz. Familiak Lantz du abizena eta orain dela hiru urte ezagutu nituen bertako kideak.

- Zer ikasten duzu bertan? Zein ikastetxean zabilta?

Hemengo 'Senior Year' egiten dihardut, hau da, High School-eko azkenengo urtea; aurten graduatuko naiz hemen. Ikastetxea "Archbold High School" deitzen da.

- Nolako da hango bizimoduak? Hemengoarekin alde handia dago?

Oso alde handia dago. Lehenik, ez dago kuadrilarik, familiarekin egiten dira planak. Baina lagunekin irteteko aukera ere badaukat (erosketetan, football-amerikar partiduetara joan,

pelikulak ikusi...). Eskola eta ikasketak oso desberdinak dira. 45 minutuko klaseak ditugu eta eskolan bertan bazkaltzen dugu. Irakasleak gelara etorri beharrean, ikasleak joaten gara euren geletara. Kirol asko egiten dituzte eskolarekin eta eskolaren izenean: ni foball taldean nago. Janariari dagokionez, oso desberdin jaten dute, eta nire ustez hau ez da oso osasuntsua.

- Nolako da Ohio?

Ohio oso erraza da azaltzen, hemengoek dioten bezala: ez bazaizu Ohioeko eguraldia gustatzen, itxaron ordu eta erdi eta guztiz aldatuko da. Itxura, egia esan, oso sinplea da; errepide lauak, bihurtzerik gabekoak eta gurutzebide askokoak eta, noski, falta ezin diren artasoroak leku guztietan.

- Zer da gehien gustatu zaitzuna?

Askok gustatu zait familiarekin berriz elkartzea, lagun berriak egitea eta esperientzia hau bizitzea.

- Eta gutxien?

Momentuz ezer, eta esperodut horrela jarraitzea.

Ketesak 2010 bulego eta erakusketarako instalazio osorik eta materialak
 altxorrik, arloz, inbentario, fiberoptikak...
bulgo materialak enpresetan banatzen dugu
 Euzko kalea, 12
 48900 Eibar
 DE. 943 201095 - FAX 943 202564
 www.bulegoak2010.com

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
 • KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK
 BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:
 Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 FAX: 943 202564

Bata musika talde hasiberria da, besteak 20 urte baino gehiago daramatza eszenatoki gainean. Hain konplikatu den musika munduan bidea egitea da baten nahia, besteak soberan lortu du hori eta punta-puntan egoteko apustua luzatzen du diska berriarekin. Lan berriak aurkezten dituzte Hikara eta Su Ta Gar taldeek.



Ametsak errealitate bihurtzen direnean

Ametsak pilatzen' da Su Ta Gar taldearen azken lanaren izena. Bost urte dira eibartarrek abesti berriekin diskoa kaleratzen ez zutela (2006an Jainko Hilen Uhartean kaleratu zuten, eta ondoren Une Iraunkorra DVD-a 2007an eta Su Ta Gar 20 Urte bilduma 2009ean) eta ikusten da zaleak irrikitan daudela doinu berriak entzuteko: egun bitan 2.000 baino gehiagotan ikusi da bideo-klipa euren Facebook orrialdean.

Su Ta Garren esentziari guztiz eusten zaiola nabari da 'Norbea bere ametsen jabe' singlean. Mokadutxoia luzatzen du taldeak urria amaieran disko berria kalean izan arte. Orduak au-

rrera, gainera, kontzertuak eskainiko dituzte diskoa zabaltzeko nahiarekin. Guztira 11 abesti ditu 'Ametsak pilatzen' diskoak eta Lorenzo Records estudioan grabatu zen uztailean.

Baxujole berriarekin ekin diote, gainera, aro berri honi. Iraitaren amaieran eskaini zuen Davidek azken kontzertua Su



Hikarak lehen diskoa kaleratu du, nahiz eta 2007tik diharduten talde modura.



Ta Garrekin lurretan eta Igor Diezek astinduko du baxua hementik aurrera.

'Made in Eibar'

Hikararen lehen diskoa kalean dago eta 5 eurotan erosi daiteke. Hala ere, MySpace-ko euren orrialdetik pasatuz gero (<http://www.myspace.com/hikararock>) lan honetako abestiak entzuteko aukera dago. Aroa

Rojas (ahotsak), Eric Deza (gitarra eta teklatuak), Josu Aguirre (gitarra eta ahotsak), Koldo Sagarzazu (bateria) eta Alex Etxeberriak (baxua) 2007az geroztik dihardute talde modura, eta urte hauetan gauzatutako lana disko moduan kaleratu dute orain.

Eibarko zigilua darama, guztiz, Hikararen diskoak. Taldeki gehienak eibartarrak izateaz gain, Legarreko estudioetan grabatu baitute Ander Barriusoren begiradapean. Hikara izenburuarekin, 12 abestiko lana eskaintzen dute eibartarrek eta Josu Salegi saxojolearen kolaborazioa ere izan dute.

'Ametsetan' da euren diskoaren lehen abestia. Ametsetan musika munduan handiak izatearekin, Su Ta Gar den bezala.

Bisitan Izarra enpresen-haztegia

Enpresa Proiektuen moduloen barruan, sormen saioa egin dute Uni Eibar-Ermuko Administrazio eta Finantzetako goi mailako eta Merkataritzako erdi mailako ikasleekin. Horrekin batera, enpresa berriak sortzeko helburuarekin, Hezkuntza Enpresa Gazte Proiektuan helburutzat duten ideiekin batera, autoenplegua bultzatu nahi da gazteen artean. Izarra enpresa gunea bisitatu dute kurtso horietako ikasleek, bertan egiten diharduten erai-kin teknologikoaren funtzionamenduaz jabetzeko; aldi berean, tailerra burutu dute InnTegra proiektuan ikasitako metodologiak garatuz.



Gaixoek daukate, berez, alzheimerra, baina gaitz hau pertsona gehiagok jasaten du. Gaixoak zaintzen dituztenen sufrimendu ikusezina handia da eta ederki daki Oskar Tejedor zinemagile legazpiarrak. Bere ama alzheimerra zuen aita zaintzen ikusi zuen, prozesua bizi izan zuen eta 'Cuidadores' dokumentalean zaintzaileengan jarri du kamararen objektiboa.

OSCAR TEJEDOR,
zinemagilea:



“Gizartea zaintzailea zaintzeko prestatu behar da”

- 'Berria'-ri eskainitako elkarrizketa batean diozu 'Cuidadores' dokumentala egitea terapia izan dela zuretzat. Zergatik?

Esperientzia pertsonal batetik abiatzen da filma; amak aitaren gaixoasunean zehar bizi izan zuen garapen emozionaletik. Denbora horretan zehar modu guztietako sentsazioak sakonki ezagutzen dituzu eta txoko batean uzten dituzu ondoren. Dokumentalaren birtartez berpiztu egin ditut sentsazio horiek eta terapia bezalakoa izan da. Orduan, lehen aurre egiteko adorea ez zenuen horren aurrean indartsua egiten zara.

- Gaixoa baino, zaintzailea da dokumentalaren ardatza.

Gizartearentzat logikoena gaixoan zentratzea da, baina inoiz ez da ikusten egunean 24 orduz eurekin batenbat dagoela zainketa lanak egiten. Nik amaren kasuan ikusi nuen hori. Orduan, zaintzaileen gainean zer zegoen ikertzen hasi nintzen, eta ikusi nuen zaintzaileek prozesuan zehar arazo fisiko eta psikologiko izugarriak jasaten dituztela. Oso injustua iruditzen zitzaidan alzheimer-gaixoaren atzean beste gaixotasun bat garatzen zegoen pertsona bat zegoela jakitea, gainera gizartearentzat ikusezina zena, eta hori kontatzea nahi nuen, zaintzaileen istorioa, gaixotasun honen sufrizaille handienak. Izan ere, gaixoak denetariko zaintzak jasotzen ditu eta alboan dagoenak bere egiten du hondatze-prozesu dena.

- Bakardadea aipatzen du zaintzaile askok. Zergatik bakardade hori?

Bakardade mota asko dago. Adibidez, ba-

kardadea bikotean bertan: zuk erabakitzen duzu maite duzun pertsona batekin bizitza osoa pasatzea eta, bapatean, fisikoki berekin bazaude ere, pertsona hori ez dago, bera beste itsaso batzuetan nabigatzen baitabil. Beste askotan adibidez, zaintzak bere gain hartzea zaila egiten zaiolako, gaixoa egoitza batera bidaltzen dute askok eta, ondoren, etxean demaseko bakardadea sentitzen dute, dena eman dutelako eta bakardade sentsazio hori hain da handia ez dakizula non sartu. Inork ezer galdetzen ez dizun bakardadea ere badago. Naiarak, ama zaintzen zuen dokumentaleko protagonista bategen, zioen: “Niri inork ez dit galdetzen nola nagoen”. Zurea den bakardade hori, egunerokoa, oso gogorra da, isolatu egiten zara eta inork ez dizu ulertzen.

- Zaintzaileak modu batean edo bestean alzheimerra duen gaixo bat zaintzeko presta daitezke?

Zaintzailea gaixotasunera egokitzen da. Orduan, etengabe erabakiak hartzen ditu, eta gaixoa jausten bada, eurak ere, gaixoen mailan jartzeko. Uste dut zaintzaileek adorea dutela, jarraitzeko duten motorra beste pertsonarekiko duten maitasuna delako. Sentsazioen maratonia denez, denboran luzatzen dena, momentu bat heltzen da gehiago ezin dutena. Beraz, ez dut uste zaintzailea prestatu behar denik, baizik eta gizartea prestatu behar da zaintzailea zaintzeko. Gu, gizartea, joan behar gara zaintzailearengana eta ez alde-rantziz. Zaintzailea autosuntsiketa espiral batean sartzen da, gehienek depresioa daukate



eta ez dira konturatzen hortan sartzen direla. Beraz, uste dut gaixo bat aztertzen denean, kontuan izan behar dela bere atzean zaindu beharreko beste gaixo bat dagoela.

- Zaintzailea zaindua izan behar da.

Hori da tesia.


- Gizartea jabetzen da alzheimerra zer den, eta zer eragiten duen gaixoan eta bere inguruan?

Asko hitz egin da gaixotasunaz beraz eta horrek gaixoarentzat esan nahi duenez, baina gizartea ez da jabetzen gaixotasunak dituen eraginetan, zaintzaileetan adibidez.


- 'Cuidadores' dokumentalak kritika onak eta sari ugari jaso ditu. Gizartean eragiteko gai izango dela pentsatzen duzu?

Pozik nago filmak izan duen oihartzunaz, baina ez soilik gizartearengan. Zaintzaileei laguntzeko, elkarteek material oso baliagarritzat jo dute; eta ez horiek bakarrik, sendagile, geriatra eta abarrek ere bai. Filma egin dudanetik zaintzaileen errealitatea ezagutzen ez zuten profesional asko gerturatu zait. Ateak ireki dizkie dokumentalak eta gaixotasuna ulertzeko beste modu bat da eurentzat.

Sagardo Eguna 2011



ALORRENA · ALTZUETA · BARKAIZTEGI · BEGIRISTAIN · EGI-LUZE · GARTZIATEGI · GAZTAÑAGA · GURUTZETA · ISASTEGI · OLAIZOLA · SARASOLA · ZAPIAIN · ZELAI



Zapatu haundia Untzagan



Eibarko izotz guztia amaitu genuen joan den zapatuko Sagardo Egunean. Bero handia egin zuen, giro ezinhobea jendeak balea erosi eta txotx egiteko. Gorenak zigitudun hamairu sagardoak probatzeko aukera izan zuen Untzagara gerturatu zen guztiak. Eskerrik asko, ...eta kitto! Euskara Elkartearen izenean, lanera etorri ziren guztiei eta antolaketa lanean laguntza eskaini diguten guztiei. Eguerdiko 12etan hasi eta ia 21.00ak arte, gainezka egin zuen herriko plazak. Twitter eta Facebook-en ere izan du jarraipena #sagardoeguna-k eta bi zozketen berri datorren astean izango duzue.



13 sagardogileak goizeko ekitaldia zabalitzen



ARGAZKIAK: Leire Iturbe
eta Silbia Hernandez







OKINDEGIA

URKO



ERMUAN ETA EIBARREN



Juan Gisasola, 4

Urkizu, 16

Guillermo

Tfnoa. 943 202 954 Mobila. 639 984 321



Goiz eta arratsalde,
arrakastatsua izan zen
Sagardo Eguna

Coliseoak dantza ikuskizun bi jasoko ditu bost egunetan. Gaur, 'Ostrukaren zuloa' izeneko lana egongo da ikusgai 20.30etatik aurrera (5 euro) eta hilaren 12an 'Nubes' eskainiko da 19.00etan (5 euro). Dantza ikuskizun bi, dantza ikuskizunetik haratago doazenak.

Beldurretik Magrittera dantzan

Ertza taldearen eskutik eta Asier Zabaletaren gidaritzapean 'Ostrukaren zuloa' dantza ikuskizuna egongo da gaur ikusgai Coliseoan. Zabaleta, zuzendaria izateaz gain, interpretea ere da eta beldurraren gainean dihardu 45 minutuz. Jendeak nola beldurratik gauzak egiteari uzten dion azaltzen du, eta bigarren mailako lorpenekin konformatzen dela, "edo ezta hori ere!".

Beldurrari desafioa botatzen dio Zabaletak. "Desafioa bota eta ez nauela beldurtzen esan nahi nioke. Hau ironia!". José Antonio Marina, Franz Kafka, Epicteto, Rilke, Marx eta Bibliako zitak aipatzen ditu lanean zehar, dantza eta ikusentzunezkoek betetako ikuskizunean.



Arteszena, Adeshoras, Compañía de Vicente Sáez, Hojarasca, Q-ro y cía. eta Masarada bezalako taldeetan aritu da Asier Zabaleta 1994. urteaz geroztik. Suitzako ALIAS konpainiako kide izan zen eta dantza ikuskizunak sortzeaz gain, mundu mailan girak egin zituen. Orain, Ertza-rekin dantza garaikidearekin artearen arlo ezberdinek lekua izatea da bere asmoa, eta

hauen arteko berriketa eta interakzioaren bitartez horiek denak aberastea.

Ponpatxoarekin hodei artean

Teoria psikoanalitikoek, telebista saioek, erakusketek, liburuek eta dokumentalek Magritte artista belgiarraren irudi boteretsuen esanahiak argitzen saiatu dira urteetan zehar. Aracaladanza dantza taldean ere Magritteren lanaren zaleak dira, "eta ez dugu inoiz ezkutatu diogun mirespena". Horrela, 'Nubes' Magritte, El Bosco, Miró eta El Greco bezalako artisten lanetan inspirazioa lortu duen antzerki talde honen bigarren lana da.

Absurdua da 'Nubes'-en motore ar-



Goian, "Nubes" dantza saioko irudia; behean, bestalde, "Ostrukaren zuloa" lanaren unea.



tistikoa, eta dantza eta objektuen arteko harremanak azken hauek bilakatzen ditu protagonista.

Magritten lanetan bezala, izan ere, objektuak ziren bere artearen protagonista, doako eta ez beharrezko kontzesiorik gabe. Magritteren ponpatxo famatua bezala, hodeiak dira hemen nagusi eta horren inguruan dantzatuko dute Coliseoan.

**Dantza ikuskizunak
Coliseoan
Gaur, 20.30etan
"OSTRUKAREN ZULOA"
12an, 19.00etan
"NUBES"**




Ana Askargorta Intxausti

(ANA ARANBERRI ZUZENDARITZA-KIDEAREN AMA)

Urriaren 2an hil zen, 63 urterekin

**Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi
nahi diegu haren senide eta lagunei.**

...eta kitto! Euskara Elkarte



Roberto Garzia eibartarra 16. Duatloiko Munduko Txapelketan

IRAILAREN AZKEN ASTEBURUAN HAINBAT PROBA JOKATU ZIREN XIXONEN ANTOLATUTAKO DUATLOIKO MUNDUKO TXAPELKETAN, 35 herrialdetako 1.100dik gora korrikalariaren parte-hartzearekin. Zapatuan maila gorenekoen txanda izan zen eta, euskaldunei dagokienez, Ainhoa Murua 5. postuan sailkatu zen nesken artean eta Kepa Ruiz 12. mutilen mailan; egun bere-

an izan zen paratleten lasterketa ere. Domekan beste maietako korrikalarien txanda izan zen, bi modalitatetan: sprint motako duatloian (5 km korrika / 20 bizikletaz / 2,5 korrika) eta olinpikoan (10 km korrika / 40 bizikletaz / 5 korrika). Roberto Garzia eibartarrak sprintean hartu zuen parte, 40-44 adin tartean, eta ordubete eta hiru minutuko denborarekin, 16.a sailkatu zen.



Urkiren nesken bigarren taldea, Alberto Horna eta Ibon Romero entrenatzaileekin.

Aukera foballean jokatu nahi duten 12-13 urtetako neskenentzat

URKI FOBALL TALDEAK AUKERA ESKAINTZEN DIE 1998 ETA 1999-AN JAIOTAKO NESKEI horrela nahi izanez gero foballean jokatzeko. Nesken bigarren taldea dihardu osatzen Urkik eta entrenamenduak martitzenetan eta barixakuetan izaten dituzte. Intersatuek 691-536425 (Alberto Lamariano) telefono zenbakira deitu dezakete edo, bestela, klubera joanda (943-701904), 18.30etatik 19.30etara, Calderón-engatik edo Txus-engatik galdetuz.

Etzi hasiko da Astelenan pilota profesionalaren denboraldia

LAU ETA ERDIKO TXAPELKETAKO NEURKETA BIREKIN HASIKO DA PILOTA PROFESIONALAREN ARLOKO DENBORALDI BERRIA Astelena frontoian; urtero legez, orain hasi eta ia San-

juanak arte luzatuko da denboraldia Astelena "katedralean". Lehenengo jaialdian lau eta erdiko txapelketaren barruko partidu bi hartuko ditu Eibarko frontoiak: hasteko, zilarrezko mailako Merino eta Olazabalen arteko neurketa; eta jarraian, partidu nagusian, Saralegi eta Idoateren arteko norgehiagoka, goi mailako lehenengo jardunaldian. Jaialdiarekin amaitzeko, binakako partidu bakarra izango da lehian: Gorka eta Ladis Galarza Mendizabal III.a eta Cecilioren aurka.




Idoatek Saralegi garaitu behar du lau eta erdiko txapelketan aurrera egiteko.

Ipuruako gimnastak 1. mailari eusteko erronka dute

BIHAR DONOSTIAN JOKATUKO DEN IZAR-LEKU TORNEOAREKIN HASIKO DU DENBORALDIA GIMNASIA ERRITMIKAKO IPURUA TALDEAK. Federatutako gimnasten talde bi izango dira: 1. mailako taldea, Olatz Laskurain, Olatz Ibaibarriaga, Carmen Gamundi, Irati Alonso eta Jone Pérezekin; eta junior mailakoa, Noelia Bedia, Irati Yarza, Kristina Alegria, Ane González eta Rakel Guerrarekin. Abendura arte lehiaketaz jositako egutegia izango dute neskek, saio guztien ginda izango den Zaragozan jokatu den Espainiako txapelketa-

rekin (abenduren 8tik 11ra). Aurretik Ipuruak Euskadiko txapelketan hartuko du parte Gasteizen (urriak 22) eta Gipuzkoakoan (azaroak 1).

Gaur egun, Ipuruarekin batera, beste bi taldek dihardute 1. mailan Euskal Herrian: Arabako Beti Aurrera eta Nafarroako Anaitasuna. Iaz senior mailako Espainiako txapelketan zilarrezko domina eskuratu eta gero, aurten mailari eusten ahaleginduko dira Ipuruakoak; horretarako, entrenamendu saioekin gogor hasi da aipatutako boskotea, Tania Nagornaia eta Susana Prieto entrenatzaileen esanetara.



Ibaibarriaga, Laskurain, Gamundi, Pérez eta Alonso dira 1. mailako taldearen bost gimnastak.

Eibar Eskubaloiko lehen taldeak domekan hasiko du denboraldia

BIGARREN MAILA TERRITORIALEAN JARDUNGO DU AURTEN EIBAR ESKUBALOIKO SENIOR MAILAKO TALDEAK. Itxaropenak bazi-zen orain osatutako klub berriaren lehen taldeak 1. mailan jarduteko aukera izango zuela, baina azkenean Andoainek onartu du maila horretan jokatzea eta eibartarrek maila bat beheragotik hasiko dute euren ibilbidea, gaur Pasaia kiroldegian, Donibanen aurka jokatuko duten partidurekin. Aurretik hainbat neurketa izan dituzte, entrenamendu gisa eta maila goragoko taldeen aurka, eta holakoetan Elgoibarri eta gure herriko Haritzari nagusitu zaizkie.


Aurreko asteburuan hasi zuten denboraldia klub berriaren jubenil mailako bi taldek eta kadete mailako laurak. Klub berriaren lehenengo partidua Bergaran jokatu zuen jubenil mailako bigarren taldeak, aurreko zapatuko goizeko 11.00-etan, bertan 30-31 nagusituz (historiarako datua). Egitura berria



sortzeak lan asko egitea eskatu badie ere, klubaren ardura-dunak gai izan dira 11 talde sortzeko, tartean hilabete honetan euren lehiaketekin hasiko diren kadete eta alebin mailako taldeak. Tartean, babes-hitzarmenak egiten dihardute herriko hainbat enpresa eta merkatarirekin, alde batera laga barik Udalarekin, Foru Aldundiarekin eta Jaurlaritzarekin dituzten harremanak, zenbait arlo lotzeko asmoarekin. Bazkideak egiteko kanpaina ere hasiko dute egunotan eta atzo, Portalean egin beharreko bilerran, orain arte emandako urratsen balantzea egiteko asmoa zuten zuzendaritza berrikoek.

Dorleta Eskamendi txirrindulariak 4. amaitu du Emakumeen Sarian

DEBABARRENA TALDEKO TXIRRINDULARIAK LAUGARRREN POSTUAN AMAITU DU Gara egunkariak antolatzen duen Emakumeen Sariko azken sailkapenean. Lointek/Cespako Ana Usabiagak



irabazitako lehiaketan, Ludivine Loze (9.), Leire Olaberria (11.), Irene San Sebastian (15.), Inma Rafael (18.) eta Ane Santesteban (20.) taldekideak sailkatu ziren bere atzetik.

Lehendakari Txapelketari dagokionez, Klub Deportiboko taldearen beste ordezkari bat izan da 4.a hor ere: Aitor González. Sergio Ruizek 12. postuan amaitu du hor eta Peio Goikoetxea izan da hurrengo Debarrenako ordezkaria. Maila horretako beste sailkapenean, Euskaldun Txapelketan, Sergio Ruiz izan da Debarrenako onena, 23. postuan. Atzerago geratu dira Aitor González eta Urtzi Murgia Deportiboko taldekideak.

El Corte Inglés - Eibar I. rallya azaroaren 19an jokatuko da

RALLYSPRINTETAKO EUSKAL TXAPELKETARAKO BAliAGARRIA IZANGO DEN PROBA datorren hilabetean jokatuko da azkenik eta, lehenengo ediziotik, El Corte Inglés - Eibar rallyaren izena hartuko du, probarekin lotutako hainbat ekitaldi merkatal erai-kin horren esparruetan egingo baitira, tartean lasterketa amaierako Parke Itxia eta sari eta trofeoen banaketa. Probak interes berezia izango du gainera, bertan erabakiko baita zein izango den txapel-duna, denboraldiko azkena izango baita gurean jokatuko dena. Ba-




taz beste, 75 autok hartzen dute parte txapelketa horretako probetan.

Rallyaren lehenengo edizioak data aldaketa bi izan ditu behinbetikoa zehaztu aurretik.

Eibar-Ponferradina Kopako kanporaketa garrantzitsua

DATORREN EGUAZTENEAN, HILAREN 12-AN, ARRATSALDEKO 20.00-ETAN HARTUKO DU MANIXEN TALDEAK. Gaztela-Leongo talde indartsua Ipuruan. 2. B mailako multzo berean jokatzen dute talde biak eta, une honetan, berdinduta daude sailkapeneko erditik gora, 11 punturekin. Kanporaketak berebiziko garrantzia du Eibarrentzat, partidu bakarrera denez, irabaztekotan aurrera egingo lukeelako eta hor gaur egun Europan jokatzen diharduten talde handienetakoren baten aurka jokatu beharko lukeelako: azken denboraldietan egokitu ez zaion zortea bereganatzeko aukera. Partidu horri begira, zuzendaritzak hainbat abantaila eskaini dizkie bazkideei: horrela, neurketa doan ikustez gain, beste sarrerak hartu ahal izango ditu 10 eurotan eta, horrez gain, hurrengo kanporaketarako %10eko deskontua izango du.



11 kiloko kongrioa harrapatu du Mikel Fuentes eibartarrak

MUTRIKUKO ALKOLEAKO URETAN HARRAPATU ZUEN KONGRIO HANDI HORI urpeko arrantzan diharduen Mikel Fuentes eibartarrak, iaioa izan arren berarentzako ere tamaina garrantzizko arraina. Bestalde, Mutrikun ere jokatutako Diana elkarteko gaueko arrantza lehiaketan, Andres Pérez Valenciaga izan zen onena berderatzi parte-hartzaileen artean; bigarren geratu zen Jose Antonio González eta azken honek harrapatu zuen piezarik handiena.

Rico McClarin, Fred PG eta Carlos Dalelanerekin batera datorkigu Marcos Coll harmonikajolea Coliseora hilaren 14an 20.30etan. Musika munduan daramatzen 20 urteak disko bikotzean sartu ditu, eta blues, soul eta funka ekarriko dizkigu KO-aren Errege honek. Karrika tabernan 1995ean bezain ondo pasatzea espero du, behintzat, Marcosek.



MARCOS COLL, musikaria:

"Kolore eta eragin anitzeko taldea gara"

- Nola izan zen kalean jotzen zenuen sasoi?

Oso dibertigarria: ez dakizu zenbat gauza gertatzen zaizkizun kalean. Uste dut honetan diharduten ia musikari guztiak, batez ere bluesekoak, kalean jo dutela inoiz, eta pasa behar den esperientzia da gainera.

- Ondoren Tonky agertzen da eta Rolling Stones taldeko Mick Taylor bezalako artistekin egiten duzu bira. Zer izan da zuretzat?

Edu Manzanasekin kalean jotzen nengoenean jaso nuen deia. Tonky zen eta berarekin jotzeko gonbitea egin zidan. Gero dena oso azkar joan zen. Ni, herri txiki bateko mutiko bat, horrelako mito baten ondoan jotzen... geroago jabetu nintzen guztiaz! Mick Taylor izugarria izan zen, baina Buddy Milesek markatu ninduen.

- Onartu ezazu. Zure harmonikak izena dauka?

Gehienek ez dakite, baina harmonizista bakoitzak 12 edo 14 harmonikaz bateriko male-tatxoa darama ikuskizun bakoitzean. Beraz, bakoitzari izena ipini beharko banoike, pentsa! Hori bai, denek daukate Hohner abizena (barreak).

- Musika irakaslea izan zara Santiagon eta Alcalá de Henaresen. Nolako izan da esperientzia?

Gustoko dut irakastea. Birekin bateragarri egitea zaila da,

baina denbora dagoenean eta ikasleek lan egiten dutenean oso ondo dago. Orain ia ez dut klaserik ematen; harmonika eta blues tailerrak gehienbat.

- Orain dela hiru urte Reyes del KO-rekin izan zinen Eibarren. Nola oroitzen duzu ikuskizuna?

Euskal Herrian aritzea maite dugu: pentsa, Gaztelupeko Hotsak da gure zigilua eta eurekin nago lanean hasi nintzenetik. Eibarren 1995an jo nuen lehenik Bertsos deituriko batek zerraman Karrika tabernan. Zeinen ondo pasa genuen!

- Orain Rico McClarinekin zator. Nolako bikotea osatuz?

Rico crack bat da, bai baterria, bai ahotsean, eta batez ere musika beltzean jakintsua, bere tradizioa delako. Horrela, blues, funk eta soula dira taldearen oinarriak. Carlos Dalelane Mozanbikoko baxujolea taldean izanik, kutsu afrikarra hartu du taldeak eta bere hizkuntzan abesti bi kantatzen ditu. Fred PG gitarrajolea Parisekoa da, taldeari fintasuna emanez. Nik, tira, kutsu latinoak ematen diot guztiari (barreak). Kolore eta eragin anitzeko taldea gara.

- Nolako izango da Eibarko kontzertua?

Badakigu toki polita dela Coliseoa. Horrelako kontzertuetan beti gustatzen zaigu jendea eserita ikustea... ondoren dantza egiten amaitzen duena!



Kilometroak: autobus arrakastatsuak

AURREKO ASTEBURUAN, DOMEKAN, AZPEITIAN OSPATUZEN KILOMETROAK JAIALDIRA JOATEKO 9 autobus irten ziren Toribio Etxebarria kaletik, 10.00etan, alde zuretik txartela erosita zutenekin beteta. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako autobus zerbitzuak aurtengoan oso harrera ona izan du eta, jendearen eskaerari erantzunez, beste batzuetan baino autobus gehiago antolatu behar izan dituzte. Irteeran zein bueltan dena lasai joan zela eta, eskerrak eman nahi dizkiete joan ziren guztiei.



Pesqueraren artelanak Topalekuan

ARRATE KULTUR ELKARTEAREN ERAKUSKETA ARETOAN OIER PESQUERA ARTISTA EIBARTARRAREN ARTELANAK daude ikusgai aurreko barixakuaz geroztik. Kordoban bizi den artistak hainbat teknika erabili dituzte orotariko artelanak ipini dituzte ikusgai, hala nola, grabatuak, akuarelak eta eskulturaren bat edo beste. Erakusketa domekara arte egongo da zabalik, gaur arratsaldean 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

Museotara irteera Kulturalarekin

ARRATE KULTUR ELKARTEAK IRTEERA ANTOLATU DU URRIAREN 29-RAKO: goizean, 09.30etan Ego Gainen autobusa hartu eta Leitzararako bidea hartuko dute, bertan dagoen Peru Harri museoan bisita egiteko. Ondoren, inguruko jatetxe batean bazkaldu eta arratsaldea Andoainem emango du taldeak, Uraren museoan. Bisita amaituta, etxera bueltatuko dira. Irteeraren prezioa 30 eurokoa da bazkideentzat eta 33 eurokoa bazkide ez direnentzat (autobusa, bazkaria eta museotarako sarrerak barne). Izen emateko mezua laga daiteke 943202299 telefono zenbakian, izen-abizenak eta harremanetan ipintzeko telefono zenbakiarekin edo, bestela, posta elektronikoa idatzi arrate.kultu@eibar.org edo arratekultu@gmail.com helbideetan.

“Bua txabal!” antzezlana Illunabarrian

APIRILEAN ESTREINATUTAKO “BUAH TXABAL!” UNAI ITURRIAGAK IDATZITAKO ANTZEZLANA EIBARREN IKUSTEKO aukera paregabea izango da, hilaren 19an (eguz-tena), 19.00etan Portalean. Ekitaldia ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu du, Illunabarrian programaren barruan.

Antzezlana Arrasate Euskaldundu Dezagun (AED) elkarteak eskatuta idatzi zuen Iturriagak, *“gazteengana modu eraginkorrean hurbiltzeko ahaleginari”* jarraituta. Ikuskizuna *“benetan dibertigarria”* izan arren, ez da denbora-pasa hutserako sortutako ikuskizuna. Sortzaileen berbetan, *“hori baino gehiago dela uste dugu, euskara gazteen artean bultzatzeko ahaleginean dihardugun guztiontzat lan tresna bikaina dela*



Jon Zubiaga da bakarrizketako protagonista.

pentsatzen dugu”. Orohar publiko gazteari zuzendutako antzezlana da, *“baina ez bereziki gaztetxo-gaztetxoei, 16-17 urtetik aurrerako publikoari baizik. Eta hortik gora, euskaldun ororentzat, obran azaleratzen diren egoerak ez baitira gazteen*

artean ematen bakarrik”. Ekoizpen aldetik, formatu txikiko antzezlana da eta aktore bakarrik, Jon Zubiaga “Osoron”-ek hartzen du parte bakarrizketa gisara planteatutako lan honetan. Sarrera doan eta nahi duen guztiarentzat libre izango da.

Jardunaldi mikologikoak asteburuan

KLUB DEPORTIBOAK URTERO SASOI HONETAN EGIN OHI DUEN MODUAN, AURTEN ERE JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK ANTOLATU DITU. Bihar eta etzi, beraz, hainbat jarduerarekin perretxikoei eskainitako jardunaldiak, hamairugarrenak garatuko dira

gurean. Egitaraua bihar goizean goizetik abiatuko da, 08.15etan, ikastolakoekin zein haur eta gurasoentzako antolatutako mendi irteerekin. Betiko martxan, perretxikotara joango dira, hurrengo egunean ikusgai ipiniko den erakusketarako espezieak batzera. Arratsaldean,

mendi irteeretan batutako perretxikoak sailkatuko dituzte Deporren, Aranzadi zientzia elkarteak lagunduta.

Eta domekan 10.00etan ekingo zaio Perretxiko Jaiari, Toribio Etxebarria kalean (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan): bezperan jasotako eta sailkatutako perretxikoen erakusketa ikusgai izango da, espezie bakoitzari buruzko hainbat datu jakingarriekin eta, horrekin batera, mikologia eta gastronomia produktuak ere eskainiko dituzte. Bestalde, nahi duenak perretxiko moeta ezberdinak probatzeko aukera paregabea izango du jardunaldien aitzakiarekin Klub Deportiboan bertan eskainiko duten bazkarian (15 euro).




Domekan bezperan jasotako perretxikoen erakusketa egingo da. / MAIALEN BELAUSTEGI

Urrian ere argazkiak ikusgai tabernetan

HILEROKO MARTXARI JARRAITUTA, KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKOEK HIRU ERAKUSKETA prestatu dituzte urrirako: Bakarne Elejalderen lanak Portalea tabernan egongo dira ikus-

gai, Einer Rodríguez Ponceren "Arquitectura Medieval" izenburuko El Ambigú-n eta J.R. San José-ren lanak Depor tabernan. Bihar hasi eta urriak 31ra bitartean egongo dira martxan hirurak.



laburrak

Q-PUNTUTIK KANPO

Aurreko asteburuan Elgoibarren jokaturako Gpuntua Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetan bertan parte hartzen ziharduen eibartar bakarria, Mikel Arrillaga txapelketatik kanpora geratu zen, Jokin Uranga azpeitiarrak irabazi zuen saioan. Kanporaketak maiatzaz geroztik jokatzeko dihardute, abenduaren 18an Donostiako Illunben jokaturako den final haundirako txartela eskuratuko duten bertsolariak aukeratzeko.

IRRATSAIOAK GURASO EUSKALDUNENTZAKO

Urriaren 3az geroztik eta azaroaren 1 Ira bitartean, guraso euskaldunei propio zuzendutako 190 irratsaio emango dituzte Euskadi Irratian eta Radio Euskadin; horietatik 17 Eibarko Udalak izenpetuak izango dira. Kanpaina honen helburua guraso euskaldunak bikote hizkuntza euskara izateak duen garrantziaz ohartaraztea da.

BEGIRALEENTZAT DEIA

Eibarko udalak antolatutako aisialdiko begirale titulazio ofizialaren zati teorikoa eta zati praktikoa 2008-2009 edo 2010-11 ikasturteetan burutu dituztenentzat, ebaluazio bakoitzuaren araubidez zuzenean emango dituen dirulaguntzen deialdia egin du Udalak. Eskaerak Pegoran egin behar dira urriaren 14ra arte.

Gerra osteko berreraikuntzaren inguruko lana


ARTEA IKERGAI ZUEN JUAN SAN MARTIN BEKAREN 2009KO EDIZIOA JAVIER MUÑOZ FERNÁNDEZEK AURKEZTUTAKO

“Euskal Herriaren eraikuntza gerra ostean: Eibarko herriaren berreraikuntza” izenburuko lanak irabazi zuen eta orain dela egun batzuk bekari esker egindako ikerketa-lana amaituta eta entregatuta dagoela eman dute aditzera. Egileak berak bere lanaren gainean esandakoari jarraituta, “1937an,

Guda Zibilarekin, Eibarko udalerrir populatu eta industrial partzialki txikituta gertatu zen. Jarraian, inprobisazioa, nahasketa, koordinazio eta mota guztietako baliabiderik gabe (ekonomiko, material zein gizakiena), erakunde eta partikularrek, batzuetan interes kontrarriekin, berreraikuntza antzu eta geldoa hasi zuten, 1938tik 1957ra bitartean “Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones” estatuaren instituzio

berriak kontrolatu zuena. 1940an Regiones Devastadas-ek ondorengo urteetan garatu zen Hiribilduaren berreraikuntza plana egin zuen”.

Ego ibaia estali eta bideratzea ardatz zuen planari buruzkoak azaltzen ditu ikertzaileak bere lanean. Bestalde, gogoan izan aurtengo X. edizioaren gaia “Mendizaletasuna” dela eta urriaren 11n amaituko dela proiektuak aurkezteko epea.



Herria berreraikitzeko irizpideak jaso ditu lanak.




Argazkigintza digitalera gerturatzeko

ARGAZKIGINTZA DIGITALA EZAGUTU ETA OINARRIZKO KONTZEPTUAK IKASI NAHI DUENAK horretarako aukera izango du, Jose Valderrey Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideak emango duen ikastaroan. Izena eman ahal izateko 16 urtetik gora izatea eskatzen dute eta klasean gutxienez 5 ikasle eta gehienez 16 onartuko dituzte. Ikastaroa urriaren hasiko da eta honako egun haue-

tan izango dira klaseak: urriaren 18, 20, 24, 27 eta 31n eta azaroaren 3, 8, 10, 15, 17, 22, 24 eta 29n, 19.00etatik 21.30etara Portaleko Argazkigintza gelan. Informazioa eskatzeko edo izena emateko urriaren 10erako Pegorara joan beharko dute interesatuek. Ikastaroaren prezioa 47 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudenentzat eta 79 eurokoa gainontzeko guztientzat.

Euskal Akwarelariak Portalean


GAUR ARRATSALDEAN HASI ETA HILAREN 30-ERA ARTE, EUSKAL AKUARELARIEN ELKARGOKO HAINBAT KIDEREN LANAK ikusteko aukera izango da Portalean. Erakusketa aretoan ikusgai izango den erakusketa ohiko ordutegian zabalduko dute, martitzetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Euskal Akwarelarien Elkargoa 1945ean sortu zen Bilbon eta gaur egun ia 300 bazkide dauzka. Arduradunen berbetan, “*artista bakoi-tzaren askatasuna eta nortasuna erakusten duten estilo artistiko ugari erabiliz gauzatutako erakusketa izango da*”.



Gabino Diego hilaren 15ean Coliseoan

JAI PRODUCTIONS ENPRESAK ANTOLATUTA, GABINO DIEGO AKTORE EZAGUNA COLISEO ANTZOKIAN IZANGO DA hilaren

15ean (zapatua), 20.30etan, “Una noche con Gabino, 8 años después” ikuskizunarekin. Sarrerak aldeztu aurretik erosteko moduan ipini dituzte, 20 eurotan, Eibarren Birjiñape, Portalea, Trinkete, Arno, Terraza eta Caserío tabernetan, Ermuan Xagua tabernan eta Elgoibarren, berriz, Lanbroan. Interneten www.jaiproductions.net helbidean ere ipini dituzte salgai eta, horrez gain, egunean bertan Coliseoan leihatilari ere egongo dira erosteko moduan, 25 eurotan. Ikuskizunarekin Gabino Diego aktorea egongo da taula gainean, Gina Piccirilli-ren zuzendaritzapean, “*bere ikuskizuna muntatu nahi eta hari-gidaria aurkitzen ez duen aktoreari bizia ematen*”.



Bertso-paper lehiaketa martxan

GAUR BERTAN IREKI DA SAN ANDRES BERTSO PAPER LEHIAKETARA LANAK ENTREGATZEKO EPEA. XVII. edizioa betetzen du aurten ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen lehiaketa eta hilabeteko tartea izango da bertsoak egiteko, azaroaren 7ra arte. Hiru maila izango dira aurten ere: Eibarko LH-ko ikasleek bertso bat edo 2 kopia aurkeztu beharko dituzte, DBHkoek 2 bertso edo 4 kopia gutxienez eta 16 urtetik gorakoek


(Euskal Herri osora zabaldua) 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez. Gaia eta doinua libreak izango dira eta bertsoak jatorrizkoak. Lanaren hiru kopia gaitzizena-rekin sinatuta bidaliko da, eta beste orri batean eta gutunazal itxian, gaitzizena identifikatzeko datuak. Bertsoak ...eta kitto! Euskara Elkartera bidali beharko dira (Urkizu 11 solairuartea). Sarituek azaroaren 25ean Portalean egingo den San Andres Bertso Jaialdian abestuko dituzten euren lanak.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, JAKES, domekan hiru urte beteko dozu-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez, haiñ alaixa eta zintzua izatiagaittik.




Zorionak, HIART, gaur bi urtetxo egin dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IRATI, astelehenian zazpi urte potolo bete zenduaz-eta. Patxo erraldoia etxekuen partez.




Zorionak, NAGORE, oin gitxi zure eguna izan da-eta. Asteburu zoragarria izan, hirukotiak, "ole eta ole"! Parkeko lagunak.



Zorionak, ALAITZ Urizar Bravo, astelehenian hamar urte egingo dozu-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ARATZ Amillategi Alberdi, domekan urtia beteko dozulako. Famelixaren partez.




Zorionak, EKAIN, gaur zure lehelengo urtia egitten dozu-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MARKO Morquecho Hernández, atzo zure lehelengo urtia egin zendualako. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ANE, gaur hiru urte betetzen dozu-eta. Etxeko guztien eta, batez be, Jone ahiztiaren partez.



Ongi-etorri irailaren 21ian jaixotako JONERI, famelixakuen partez. Patxo potolo bat aitaxo, amatxo eta bere ahizta Aneren partez.



Zorionak, MAIDER, harañegun zortzi urte egin zenduaz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, DANEL Ibarrola, 11n zortzi urte egingo dozu-eta. Patxo potolua, kirolari! aitta, ama, Paule eta famelixa osuaren partez.

zinea Coliseoan



"Urteberri on, Amona!"

Zuzendaria: Telmo Esnal
Aktoreak: Nagore Aranburu, Pedro Otaegi, Kontxu Odriozola, Joxean Bengoetxea

7an: 22.30
8an: 17.00, 19.45, 22.30
9an: 17.00, 20.00
10ean: 20.30



"Johnny English Returns"

Zuzendaria: Paul Anderson
Aktoreak: Rowan Atkinson, Gillian Anderson, Dominic West, Rosamund Pike


7an: 22.30
8an: 17.00, 19.45, 22.30
9an: 17.00, 20.00
10ean: 20.30




"El Capitán Trueno..."

Zuzendaria: Antonio Hernández
Aktoreak: Sergio Peris, Natasha Yarovenko, Manuel Martínez, Adrian Lamana


7an: 22.30
8an: 19.45, 22.30
9an: 20.00
10ean: 20.30



Zorionak, gure amama ROSARI eta MARKEL etxeko mutil haundixari, hillaren 4an urtiak bete dozuez-eta.



Zorionak, AINHOA Unanue Thobie, atzo urtebete egin zenduan-eta. Zure gurasuen eta izeba Ziortzaren partez.



"Phineas y Ferb"

Zuzendaria:
Dan Povenmire

8an: 17.00
9an: 17.00

HILDAKOAK

- Marino Solaguren Ariznabarreta. 87 urte. 2011-IX-29.
- Alberto Jose Sánchez Ibazeta. 61 urte. 2011-IX-29.
- Jose Manuel González Hernández. 63 urte. 2011-IX-30.
- Jon Astigarraga Bergara. 69 urte. 2011-IX-30.
- Jose Muñoz Zabaleta. 90 urte. 2011-X-1.
- Josefina Aulestiarte Laskurain. 82 urte. 2011-X-1.
- Ana Askargorta Intxausti. 63 urte. 2011-X-2.
- Felix Griñón González. 71 urte. 2011-X-3.
- M^o Luz Rodríguez Berdote. 70 urte. 2011-X-4.
- Roberto Gómez Nogueira. 58 urte. 2011-X-4.

JAOTAKOAK

- Kelian Valdés Traba. 2011-IX-26.
- David Ngengo. 2011-IX-27.
- Gorka Fernández Fernández. 2011-IX-29.
- Mikel Hernaltes Malvar. 2011-IX-29.
- Mikel Treviño Vega. 2011-IX-30.
- Ane Muxika García. 2011-X-1.
- Ander Aranguren Basurto. 2011-X-1.

horoskopoa

ARIES

Atsedena hartu behar duzu. Gora eta behera zabiltza gelditu barik eta zure gorputzak ezin du gehiago. Erritmoa gelditu ezean, okerrera egingo duzu.

TAURUS

Sagardo Eguneke ajearekin oraindik? Ez da gutxiagorako, Untzagan zegoen sagardoaren erdia edan zenuen-eta! Eskerrak txorizoak lagundu zizula...

GEMINI

Poza sentituko duzu pertsona hori ikusten duzun bakoitzean. Gero eta bereziagoa izango da zuretzat eta ezingo duzu burutik kendu.

CANCER

Ahal duzun guztia egiten baduzu, ez daukazu zertan triste egon. Guztia ondo irtetzea ez dago zure esku, baina gutxienez saiatu zaitez.

LEO

Ur gehiago edan, janari garbiagoak jan, kirola egin... badakizu zer den hori, ezta? Ea zuk ere praktikatzen duzun, bada, horietako zerbait.

VIRGO

Denbora gehiegi emango duzu ordenagailu aurrean. Zain zaude, baina pantailari begira egoteagatik ez duzu azkarrago jasoko berria.

LIBRA

Asteburu ona pasako duzu konpainia onean. Aspaldi ez zinela holan, azken aldian burua beste leku batean izan baituzu. Bizi momentu paregabea!

SCORPIUS

Zaila izango duzu dieta jarraitzea. Bazkariak, ospakizunak, afariak... nola jarraitu horrela dieta bat? Beste une baterako laga beharko duzu.

SAGITTARIUS

Ez duzu uste kolonia gehiegi erabiltzen duzula? Kaletik zoazen bakoitzean arrastoa lagatzen duzu. Gutxiago botata hobeto ez akaso?

CAPRICORNIUS

Ez da aste berezia izango zuretzat. Betiko errotina, betiko lana, betiko jarduerak... emozio gabeko astea izango duzu aurretik. Besterik gabe.

AQUARIUS

Barre egiteko sasoi iritsi da. Laga atzean negarrak eta ekiozu etorkizunari irrifarrearekin. Aste honetan izango duzu aitzakiarik.

PISCIS

Urteetan atzera buelta egin duzula ematen du. Umea dirudizu! Gertukoak ere harrিতuta dituzu eta galdetuko dizute ea zergatik den hori.

Barixakua 7**GURE BALIOAK**

18.00.- Umeentzako tailerra, ikuskizunak, kale animazioa... Gure Balioak programaren barruan. Untzaga-Toribio Etxebarrian.

DANTZA

20.30.- "Ostrukaren zuloa" ("El agujero del avestruz"), Ertza dantza taldearen eskutik. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

Zapatua 8**XIII. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK**

08.15.- Ikastolako mendi irteera. Haur eta gurasoentzako mendi irteera. Perretxikotara joango dira, erakusketarako espezieak batzera. Arratsaldean batutako perretxikoak sailkatuko dituzte Deporren, Aranzadi zientzia elkarteak lagunduta.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-ekoen irteera. Untzagan hasita.

Domeka 9**XIII. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK**

10.00.- Perretxiko jaia: bezperan jasotako perretxikoen erakusketa, mikologia eta gastronomia produktuak. Perretxikoen dastatze-bazkaria Klub Deportiboan (15 euro). Toribio Etxebarria kalean (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan egingo da erakusketa).

KONTZERTUA

12.30.- Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Untzagan.

Astelehena 10**IRTEERA**

09.00.- Salinas de Añana eta Frías-dera irteera, Ikastenen eskutik. Irteera Ego Gaietako autobus geltokitik.

Eguaztena 12**DANTZA**

17.00.- "Nubes", Aracaladanza taldearen eskutik. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

Eguena 13**ODOL-ATERATZEA**

18.30.- Odol-emaileentzat odol-ateratzea, elkartearen egoitzan (Pagaegi, 3 behean).

bekak**- X. Juan San Martin Beka 2011.**

Ikerketa esparrua: Mendizaletasuna. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Urriaren 11ra arte, Pegoran.

diru-laguntzak**- Umeak Eskolara 2011 eta Dirulaguntzak Ikasleei 2011.**

Eskaerak aurkezteko epea: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

ikastaroak**- Irakurketa-taldea.**

Antolatzailea: Pagatxa emakumeen elkartea. Irakaslea: Jone Arroitauregi. Noiz: Urriaren 19an, 16.00etatik 17.30etara Portalean. Izen-ematea eta informazioa: 943206735 / 687368907.

- Argazkigintza Digitala: Lehen Urratsak.

Noiz eta non: Urriak 18, 20, 24, 27 eta 31; azaroak 3, 8, 10, 15, 17, 22, 24 eta 29. Portalean (19.00etatik 21.30etara). Informazioa eta izen-ematea: Urriaren 3tik 10era, Pegoran.

- Sektore turistikoarentzako ikastaroak.


Noiz eta non: Irailak 19, urriak 17, azaroak 21 eta abenduak 12, 09.00etatik 13.00era Debegesan. Informazioa eta izen-ematea: 943820110 (Beatriz) edo beaescobar@debegesa.com helbidean.

- Esperientzia Eskola.

Noiz: Urriaren 18tik ekainaren 7ra arte, martitzen, eguazten eta eguenetan, 09.30etatik 12.30etara. Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 14ra arte, Debabarreneko udaletxeetan (200 euro). 626773676 telefonon.

- Erretzeari lagatzeko ikastaroa.

Noiz: Azaroak 7, 14, 21 eta 28; abenduak 12 eta 19; azaroak 3 eta 17; urtarrilak 9; eta martxoak 26 (gogoratzeko saioa), 18.30etatik 19.30etara, Portalean (ikastaro gelan). Izen-ematea: Urriaren 16tik 20ra, Pegoran (30 euro Eibarren errolatutakoek, 50 euro besteek).



erakusketak

- Urriaren 9ra arte
OIER PESQUERA artista plastikoaren lanen erakusketa. *Topalekuan.*
- Urriaren 16ra arte
"MUGARTEA" Ermuko Pintura Taldekoen erakusketa. *Portalean.*
- Urriaren 30era arte
EUSKAL AKUARELARIEN ELKARTEAren erakusketa kolektiboa. *Portalean.*
- Urriaren 31ra arte
J.R. SAN JOSEren argazki erakusketa. *Deportabernan.*
- EINER RODRIGUEZ PONCE**ren "Arquitectura Medieval" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- BAKARNE ELEJALDE**ren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- Azaroaren 23ra arte
"MEDUELELAVIDA" RUBENen erakusketa berezia. *Karrika tabernan.*

lehiaketak

- **Indalezio Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketa.**
Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 7ra arte, Pegoran.
- **Asier Errasti Eibarko XI. Laburmetraia Jaialdia.**
Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 7ra arte, Pegoran.
- **"Sanandresak 2011 Eibarren" Kartel Lehiaketa.**
Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 20ra arte, Pegoran.
- **San Andres Bertso-Paper Lehiaketa.**
Lanak aurkeztea eta informazioa: Azaroaren 7ra arte, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuartea).

farmaziak

- 7, barixakua**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberría, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 8, zapatua**
EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 9, domeka**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 10, astelehena**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 11, martitzena**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
- 12, eguaztena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 13, eguena**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 14, barixakua**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

			6	2			
	9					6	
6		4		9		2	5
		6	3		9	8	
	2		1	6		4	
		3	5		7	6	
2		8		3		9	6
	5						7
			2	4			

DENBORAPASAK

1	2	3	5	4	8	7	9	6
4	9	7	1	6	3	8	2	5
5	6	8	2	9	7	3	1	4
9	3	2	8	1	4	5	6	7
8	1	5	3	7	2	4	8	9
7	8	4	9	6	5	2	3	1
2	4	8	6	5	1	7	3	9
3	7	1	4	2	8	9	5	6
8	5	6	7	3	9	1	4	2

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Soraluzen. 3 logela. 70 m² + ganbara + garajea (itxita, pegora aldamenean, 15 m²). 189.000 euro. Altzariekin eta egoera onean. Sartzeko moduan. Eguzkitsua eta balkoiarekin. Erditik 5 minutura. Tel. 696-658413 eta 626-666919.

– Amañako dorreetan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldea, komun handia, balkoi bi, trasteroa eta garajea. Tel. 625-436733 eta 679-342893.

1.2. Errentan

– Etxebizitza alokagai Ermuan. 2 logela. Igogailua. Prezio onean. Tel. 661-653160.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 649-313548 eta 943-201933.

– Amañan pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Tel. 646-484230.

– Logela biko pisua behar da alokairuan Bista Eder inguruan. Tel. 688-618959.

– Logela biko pisua behar da alokairuan Urkizu inguruan. Tel. 638-047847.

– Familia batek pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 669-966611.

– Eibarko bikote batek egoera onean dagoen pisua nahi du alokairuan. Tel. 670-428966.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 693-950032.

– Iparragirre kalean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 618-086191.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Opel Astra salgai. 93 urtekoa eta egoera onean. Tel. 695-743398.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Urkizu inguruan garajea alokagai. Marraduna. Tel. 639-632172 eta 943-127104.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 689-243694.

– 40 urteko emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 633-150376.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 682-277198.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-555040.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita gauzez ere. Tel. 682-934865.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita gauzez ere. Tel. 682-553224.

– Mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako: nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin, baserrian jardun... Tel. 630-031218.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta besteen oporretan euren ordez jarduteko. Tel. 657-396018.

– Mutila eskaintzen da pintore lanak egiteko. Tel. 610-017571.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-436363.

– Erizain-laguntzailea, geriatrian espezializatua eta ilepintzaile tituluarekin, eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-898349.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 619-445548.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 636-517025.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 669-994669.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 691-743549.

– Emakumea eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 677-689227. Aitziber.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 651-836353.

– Administrazio lanak egingo nituzke arratsalde. Deitu 15.00etatik 19.00etara. Tel. 943-702089.

– Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Tel. 676-858210.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da kamarero edo sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 603-580958.

– Mutila eskaintzen da kamarero edo sukalde-laguntzaile moduan eta igeltsero-peoi jarduteko. Tel. 696-849004.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 696-509360.

– Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 695-303240.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 669-068439.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 671-742142.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 677-330628.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 619-507664.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 638-047847.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gau eta egunez. Tel. 676-858210.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko externa moduan. Tel. 649-044223.

– Gizonezkoa eskaintzen da tabernetan lan egiteko, garbiketarako eta igeltsero jarduteko. Tel. 699-232823.

4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da Eibarko erdi aldean. Kontratuarekin. Tel. 653-019962.

– Laguntzailea behar da Ermuko hertz-klínika batean. Astean 11 ordu. Deitu 18.00etatik 20.00etara. Tel. 615-724810.

– Neska euskalduna behar da ume bi zaintzeko. Autoa izatea beharrezkoa. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 605-714109.

– Emakumea behar da etxeko lanetarako. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 649-388582.

– Kamarera behar da jatetxe batean. Tel. 943-121262.

– Asteburuetarako kamarera/o(ak) behar dira. Euskaraz egitea ezinbestekoa. Tel. 679-950907.

– Tabernarako sukaldaria behar da. Tel. 605-771995.

– Txoferra behar da astelehenetik ostegunera orduka lan egiteko. Eskaintza egokia lanik gabe edo ikasten bazaude. Tel. 628-061783.

– Kamarera/o euskalduna behar da asteburu eta jai-egunetarako. Esperientziarekin. Tel. 615-759399.

– Ugan Klubak pilates eta spinning monitorrea behar du. Bidali kurrikulumak ugan.klub@euskalnet.net

– Aho eta hertz higienista behar da hertz-klínika batean. Bidali kurrikulumak: dentalweb@hotmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Ingeniari kimikoak klase partikularrak emango lituzke. LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

– Euskarazko klaseak ematen ditut, azterketak prestatzeko: EGA, hizkuntz eskakizunak... Tel. 620-608065.

– Euskarazko klaseak ematen ditut maila guztietan. Tel. 620-608065.

– Lizenziatua eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 699-069080.

– Alemanierazko klaseak ematen ditut haur eta helduentzat. Tel. 647-275374.

– Mutila euskalduna eskaintzen da LH eta DBHko klaseak emateko. Disponibilitate osoa. Tel. 636-252957.

– Ingeleseko klaseak ematen ditut. Erresuma Batuan jaioa eta tituluduna. Esperientzia. Tel. 639-434668.

– Ingenieritza titulodun neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 670-251265.

– Ingeleseko klaseak ematen ditut, heldu eta unibertsitariendako. Tel. 628-061783.

– Matematiketako klase partikularrak ematen ditut, DBH ikasleendako. Tel. 695-718855.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Umearentzako kotxe-kapota salgai. Silver-Cross urdina. Egoera onean. Tel. 620-642654.

– Saxo altua salgai, Yamaha markakoa. Urtebete erabilia. 650 euro. Tel. 609-893898.

ONDO ENTZUTEN DUZU?

Natural Optics PLAZAOLA-n
irtenbidea aurkituko diegu
zure entzumen arazoei

Audifonoen egokitzapena eta entzumen-azterketak
Zaratari eta urari aurre egiteko molde eta tapoiak
Bakoitzari egokitutako jarraipen eta arreta

Errebal, 14 20600 Eibar GIPUZKOA 943 202 137 plazaola@naturaloptics.com

> **klinika kortazar**

Gidabaimenak eta armabaimenak



Zatoz
dastatzera!

Zure
zain
gaituzu!

Tel.
943-257536

KATETXO

J. Etxeberria, 5



Informazioa
eta eskaerak:

katetxo@yahoo.com

FACEBOOK-en gaude


TE, KAFE ETA TXOKOLATE detaile originalak aurkituko dituzu eztei, urtebetetze, Gabonetako otar eta opariak...



*Munduko
kaferik onenak*

...
*toki guztietakoak
eta aromatizatuak*

...
*ehotu eta potetan
berrehala
sartutakoak*



*Txokolateak
eta bonboiak*

*Te jatorrizko
eta aromatikoak*

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu



Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75